

Atzoko Behobia-Donostia lasterketan herritar ugari izan ziren

Guztira 85 korrikalarik hartu zuten parte. David Martin atletak zazpigarren postuan amaitu zuen. Gai-nontzeko herritarren sailkapena eta denborak seigarren orrian aurkituko dituzue. /6



Baserriko Saltsa haurrentzako antzezlan herrian

Haurrek primeran pasa zuten animalia artean arrautzaren bila larunbatean

Larunbatean haurrentzako antzerkia egon zen kulturetxean. *La Baldufe* antzerki taldeak eskaini zuen *Baserriko Saltsa* antzezlan. Arratsaldeko 18:00etan hasi zen eta han bildu ziren hainbat haur eta guraso lana ikustera. Txontxongilo desberdinen laguntzarekin, behiarena, katuarena eta txerriarena esaterako, aritu ziren arrautzaren lapurraren bila. Era sinple batean oholtzaren gainean leku desberdin asko itxuratu zituzten, ikulua, baratza... eta giro polita sortu zuten ikuslegoaren artean.

Haurrek oso ondo pasa zuten lapurra bilatzen laguntzen eta pistak ematen zizkieten pertsonaiei arrastoak aurkitzen zituzten bitartean. •



La Baldufe antzerki taldeak saio polita eta atsegina egin zuen larunbat arratsaldean. Haurrek gozatu zuten.

Rouge taldea kulturetxean

Rouge musika taldeak kontzertua eskaini zuen ostiralean kulturetxeko kafetegian.

Xpression Elkartea eta Lasarte-Oriako Gazteria sailak sinatutako akordioaren baitan ostiralean Rouge talde donostiarrak egon zen entzungai kulturetxeko kafetegian. Ekimenak harrera ona izan du herriko gazteen artean. Rock freskoa lanzen duen talde honek 70. hamarkadako musika estiloari arreta jartzen dio batetik eta bestetik The Who, Rolling Stones, Radiohead eta Coldplay bezalako taldeen bertsioak jo zituzten. Jendeak gustura zuten Rouge taldearen abes- tiak, gazte ugari bildu zen. •



GIZARTEA ■ 2

Zirt edo zart: murriztu!, heziketa kanpaina martxan

ELKARRIZKETA ■ 3

Dorleta Urretabizkaia aktorearekin solasean

ELKARRIZKETA ■ 4

Mikel Mazkieran SOS Arrazakeriako partaidearekin hitz egin dugu



Material elektrikoa Argiak
Etxetresna elektrikoak
TB/Hi-Fi
Instalazio elektrikoak

ELEKTRIZITATEA
ARREGUI

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA



Zirt edo zart: murriztu!, zabor gutxiago sortzen ikasteko heziketa kanpaina

TXINTXARRI

Gaurtik eta urte bukaera bitartean, Lasarte-Oriako ikastetxeetako 10 eta 11 urteko ikasleek zabor gutxiago sortzeko jokabide egokiak ezagutuko dituzte, *Zirt edo zart: murriztu!* izeneko kanpainaren bidez.

San Markos Mankomunitatearen egitasmoaren helburua ikasleak kontzientziatzea da hondakin gutxiago sor dezaten. Bide batez, ikasleen ingurukoek ere, etxekoek eta lagunarteak, jasoko dute jokabide egoki horien berri. Kanpaina berezia da eta jolas, joku, denborapasa eta jolas-jardueren bidez, zabor gutxiago sortzeko bideak eta ondo birziklatzeko moduak erakutsiko zaizkie haurrei.

Zaborra gaika biltzeko zerbitzua alperrikakoa da herritarrek hondakinak ondo sailkatzen ez badituzte. Beraz, zaborrak edukiontzietan utzi aurretik ahalik eta hondakin kantitate txikiena sortzea eta sortutakoa ahalik eta gehien berrerabiltzea da kanpainaren helburua.

Bi saio

Lehen saioan, bideo eta sketch baten bidez, hondakinaren problematika ezagutuko dute ikasleek. *Gutxiagorekin gehiago* izeneko jokoan arituko dira segidan. Joko honen bidez, bi



Antzara erraldoia jokoan hondakinaren murrizketari eta berrerabilpenari buruzko galderak erantzun eta proba desberdinak gainditu beharko dituzte ikasleek.

erosketa mota alderatuko dituzte, batetik kontsumista, eta bestetik arduratsua. Bietan produktu berak erosi daitezke, baina batak besteak baino zabor gehiago sortzen duela ikusiko dute.

Bigarren saioan, antzara erraldoia jokoan hondakinaren murrizketari eta berrerabilpenari buruzko galderak erantzun eta proba desberdinak gainditu beharko dituzte.

Parte-hartzaile guztiek probak egin beharko dituzte, eta hiru joko dira, nagusiki.

Lehena, *Erosketak egiten* simulazio-jokoa da; antzeko produktuen artean hautatzean ingurumen-irizpideak eta irizpide jasangarriak erabiltzera bultzatzen du.

Aurpegi bat, gurutze asko da bigarren jokoak; joko horretan, hondakinaren berrerabilpe-

na lantzen da, bikotekako joko dibertigarri baten bidez.

Hirugarrenean, *Elkarrentzako modukoak* jokoan, taldeka jokatuko dute parte-hartzaileek, eta hondakinak nora joango diren erabaki beharko dute, San Markos Mankomunitateak herritarrei eskaintzen dizkieten edukiontzia eta bilketa-zerbitzuak kontuan hartuta.

10 udalerrietan

Ez da Lasarte-Orian bakarrik egingo heziketa kanpaina hau. Izan ere, San Markoseko Udal Elkartearen biltzen diren 10 udalerrietan Lehen Hezikuntzako 67 zentrotan egingo baita. Eta guztira urria, azaroa eta abenduan 4.900 ikasle inguruk parte hartuko dute *Zirt edo zart: murriztu!* ekimenean. •

Bizikletaren mekanika ezagutzeko tailerra azaroan izango da

Udal kirol zerbitzuak iaz hasi zuen ekimenari jarraipena emanez, bizikletaren mekanika ikasteko tailerra antolatu du.

Tailer honen helburua bizikleta hobeto ezagutzea eta bizikleta txirrindulariaren gorpuzkerari egokitzea da.

Azaroaren 24tik 27ra bitartean eskainiko duten mekanika tailerrak arratsaldeko 19:30etatik 21:00etara izango du leku udal kiroldegian.

Taldea gehienez 20 lagunekin osatuko dute, beraz lehenbailehen izena ematea komeni da.

Bizikleta mekanika tailerrean interesa duenak udalaren kiroldegiko bulegotik pasa beharko du.

Prezioari dagokionez, bazkideentzat doakoa da eta

bazkide ez direnentzat 20 euro dira.

Edukiak

Udal kiroldegitik jakinarazi digutenez, bizikletaren mekanika tailerrak ondorengo edukiak jasoko ditu: bate-tik, bizikletaren muntaia-ri dagokionez (balaztak, gurpilak eta ardatzak, platoak aldatzeko tresna...); pieza hauen doitzeta eta erregulazioa; gurpilaren ardatzen koi-peztatzea eta, azkenik, bizikleta txirrindulariaren gorpuzkerari egokitzea; kalen kokapena zapatilan.

Azken finean, txirrindulariek bizikletaren muntaia eta gutxieneko mantenua egiten jakin dezaten erakustea da tailerraren helburua. •



Kirol emaitzak

Futbola

Ostadar-Danena (II. Erregionala)	9-0
Ordizia-Lasarte-Oria taldea (II. Erregionala)	2-1
Lasarte-Oria Taldea-Segura (I. Jubenila)	4-0
Ostadar-Hondarribia (Kadeteen Ohorezko Maila)	2-2
Real Union-Ostadar (Emakumezkoen KDT FI I)	0-2
Hondarribia-Ostadar (Infantilen Ohorezko Maila)	2-1
Ostadar-Hondarribia (Infantil Txikiak)	0-1
Ostadar-Anaitasuna (Alebina)	7-3

Areto-Futbola

Aldaz H.K.-Club Deportivo Alegria (Euskal Liga)	5-4
---	-----

Saskibaloia

Ainhoa-Gazteluzar (Gizonezko seniorrak)	59-34
---	-------

Dorleta Urretabizkaia

"Txikitatik idatzi dut, baina niretzat"

Jon ALTUNA

Dorleta Urretabizkaia, aspaldian zuzendari laguntzaile lanetan ari da zenbait antzezlanetan. Urrian estreinatu dute "Lola ikusten baduzu esan aberatsa dela" lana Ados taldearekin. 2006an Irun saria irabazi zuen "Jaione" nobelarekin. Ordutik, gidoiak idatzi ditu, zuzendari laguntzaile aritu da eta antzezlanen euskarazko moldaketaz arduratu. Momentuz ez du lan askorik taula gainean, baina, zain dago, izan ere, hori da eta gustukoena duena.

Asko ez da etortzen Dorleta Urretabizkaia Lasartera, baina Txintxarritik deitu eta irribarretsu azaldu zen aurreko asteko arratsalde euritsuetako batean. Bere azken egitekoetaz hasi ginen solasean; urrian aurkeztu du Ados konpainiak "Lola ikusten baduzu esan aberatsa dela" antzezlan. Dorleta euskarazko moldaketaz arduratu da, Garbi Losadaren testua itzultzeaz. "Adosekin 2005ean hasi nintzen lanean, musikal batean aktorea, gero, "el jefe de todo esto" hurrengoan jada zuzendari laguntzaile bezala, oraingo honetan ere zuzendari laguntzaile ibili naiz eta testua ere nik itzuli dut" kontatu digu Dorletak.

Lasarte-Orian jaiotako antzezlearen iritzi, hizkuntzak berak beste tonu bat ematen dio antzezlanari, ezberdina da hizkuntza bakoitzean.

Zer moduzkoa da euskarazko moldaketa egiteko lana? Ez da bakarrik testua itzultzea izango, ezta?

Ez, noski. Aktore bezala gertatu zait askotan, euskarazko testua hartu eta pentsatu: "hau nola esango dut?... ezin da esan!". Beraz, aktoreei plan-teamendu irekia egin nien hasieratik: "zuek proposatu, zuek eroso egotea da garrantzitsua", eta lana plazer bat izan da. Aktoreek oso ondo hitz egiten dute euskaraz, eta asko lagundu didate. Nik proposamena eramaten nuen, ahalik eta zuzenena, eta gero beraien artean landu dute.

Aktore gisa zara ezaguna, baina idazlea ere bazara, ezta?

Bai.

Ala idazlea zara?

Ez dakit, liburu bat idatzi nuen eta saritu egin zuten. Ordutik hasi naiz gidoiak idazten, zuzendari laguntzaile,... bideak zabaltu dizkit.



Antzerkian ari da lanean Dorleta Urretabizkaia, baina zineman ere gustura egingo luke.

Liburua 2006an Irun Saria irabazi zuen "Jaione" da, ezta?

Bai.

Besterik idatzi al duzu?

Ez, bakarria da. Beno, orain ipuin bat idatzi dut eskatu egin zidatelako. Beti gustatu izan zait idaztea, baina ez dut sekula serio hartu. Burugogorra naiz, beti idatzi dut niretzat, nire folioetan. Kafetxo bat hartu eta zerbait idazten dut,... Txikitari ere idazten nuen, baina serio jarri ez. "Jaione" hasi eta bukatu izan zen...

Asmorik ba al duzu idazten jarraitzeko?

Bai. Antzerki lan bat eta beste nobela bat hasita dauzkat, baina gelditu egin naiz. Lanean aritu naiz eta ez dut tarterik aurkitu. Edo, ez dakit, uste dut, beldur piska bat daukadala. Lehen, nola ez nuen ezer espero, dena libre zen, niretzako idazten nuen, eta orain, aldiz, "kikilduta" nago: Lehen ondo xamar egin badut orain hobeto egin beharko dut.

Lan aldetik lasai zabiltzala esan didazu, aktore lanetan ez zaitugu aspaldian ikusi,...

"El Jefe de Todo Esto" antzezlanen aritu naiz zuzendari laguntzaile, eta Elena Irueta oso lanpetuta dabilenez, bion artean egiten dugu pertsonaia,

txandaka. Azkenaldian emana deldexente izan ditugu eta batzutan aritu naiz ni.

Ondo pasatzen al duzu?

Bai oso ondo, katxondeoa da, endredozko komedia. Oskar Terol izugarria da. Lehengoan erosketako karrotxo bat sartu zuen eszenan. Oso ondo pasatzen dugu.

Beraz horretan ari zara?

Goenkalen ere aritu nintzen baina bukatu nuen eta ea zerbait ateratzen den, zain.

Bestela, azken lan serioa Chejov-en ipuinak izan zen, ezta?

Bai eta iparraldean ere aritu naiz, Getariko konpainia batean, euskaraz, frantsesez eta gaztelerez egiten dute lan. Molierren "sendagilea egurtu" lana prestatu genuen. Zerbitzari paper bat nuen, hasieran euskaraz egitekoa nintzen baina azkenean gaztelerez egin nuen.

Oroitzapen politik ba al duzu antzezlanen batetaz? Zeinetaz?

Politena Chejov-ena izan da eta ez lortu genituen sariengatik. Oso gustura aritu nintzen, eta gainera lagun onak egin nituen hor.

Hori ere literaturarekin lotuta?

Bai.

Eta zineman aritu al zara?

Zineman bakarrik TV movie batean aritu naiz, hau da, zine formatuan baina telebistarako egindako "Mi Hijo Arturo" filmean, 2001ean. Lehen aldia izan zen zinema eta lan egiteko modu hori ezagutu nuen.

Telebistari dagokionez Goenkalen oso gazte hasi zinen, ezta?

Bai 16 urterekin. Ikasten ari nintzela antzerkia egiten nuen, Landaberrin. 13 urterekin Donostiara joan nintzen bizitzera eta antzerki klaseak hartzen hasi nintzen. UBI-COU egiten ari nintzela amak esan zidan behin: "Dorleta, casting bat dago" eta Lasarteko koadrila osoa punkiz jantzita joan ginen. Bilbon euskara maila ikusteko proba bat pasa genuen. Hortik Miramonera joateko esan ziguten biri. 3. BBB-BUP bukatu eta UBI arratsaldetan egiteko moldatu behar izan nuen lehenengo urtean. Goizetan grabatu egiten genuen. Beste urte bat aritu eta gero Bartzelonara joan nintzen.

Zer moduzko esperientzia izan zen?

Bapatean kristoren booma izan zen, arraroa, jende asko kasu egiten zizun kaletik,... baina ondo. Asko lagundu zidaten etxeokoe eta lagunek. Lurra ukitu beharra zen, bestela,...

Bizirik al da telebistako zure pertsonajea?

Bartzelonara joan ginen biok. Leire historia ikastera joan zen eta Dorleta Arte Dramatikoa ikastera.

Bartzelonan ikasi zenuen beraz, ...

Bai hiru urte egon nintzen.

Eta Madrilen ere egin duzu lan, ezta?

Madrilera Policías egitera joaten nintzen. Beste ikastaro batzuk egitera ere bai. Ez zait asko gustatzen. Joan lana egin eta buelta. Bartzelona hobeto dago.

Goenkalen berriro ere aritu zara papertxo batekin, Martin telesailean ere bai, eta zinemari? Lanik egingo al zenuke zineman?

Nahiko nuke, baina ez dago nire esku,... Lotura handia dauka antzerkiarekin. Istoriaak kontatzen dira. Gustatuko litzaidake.

Eta ikusteko, zinema gustuko al duzu?

Bai, asko.

Azken urteotan filme batzuek egin dira euskaraz, zein iritzi duzu?

Lehenengoa, "Aupa Etxebeste" asko gustatu zitzaidan. Oso komedia ona da. Iruditzen zait filmak euskaraz egin egin behar direla. Aurrera egin behar dugu bide honetatik.

Beste zein zaletasun dituzu denborapasarako?

Despejatzeko margotu egiten dut. Nire musika jarri eta asko gustatzen zait. Kirolik ez. Margotu, idatzi, pelikula ikusi,...

Zertan ari zara? Zein asmo dituzu gerorako?

Vaivenek lana proposatu dit. Donostiako konpainia honekin duela urte batzuk Chejov-en ipuinak egin nuen eta prestatuko duten lan berrian zuzendari laguntzaile izateko proposatu didate. Horren esperoan naiz, abenduan edo urtarrilean izango da. Ez du data konkreturik, zain nago.

Aspaldian, beraz, batez ere zuzendari laguntzaile lanetan aritu zara...

Bai aspaldian ez dator lanik aktore moduan.

Gustatzen zaizu aktore lana?

Bai, gehiena.

Lasarte-Oriara etortzen al zara?

Ba ez asko. Bidali egingo nauzue. •

"Liburu bat idatzi nuen eta saritu egin zidaten.

Ordutik hasi naiz gidoiak idazten, antzerkian zuzendari laguntzaile,... bideak zabaltu dizkit."

‘Inmigrazioa ezin da kontrolekin mugatu, egin beharrekoa errealitatea onartzea da’

Mikel Mazkieran Lasarte-Oriako herritarra SOS Arrazakeria elkartearen partaidea da, hainbat artikulua idatzi ditu eta argitaratu

berri den *Hegoaldeko muga. Europako inmigrazioa kontrolatzeko metodoak eta kanpoan kudeatzeari buruzko politika*

berriak liburuan parte hartu du, beste idazleen artean. Liburuan jorratzen diren gaiei buruz jardun gara beraz Mikelekin.

Nerea EIZAGIRRE

Nolatan parte hartu duzu liburuan?

Argitaletxetik deitu zidaten, nire artikulua bat irakurri zutela eta gustatu zitzaizela esanez eta artikulua bat egitea proposatu zidaten.

Hegoaldeko mugan gaizki kudeatzen al da migrazioa?

Bai, proba garbiena eta garbiena muga gainditzen saiatzen diren hildako kopurua dugu.

Orain dela gutxi, Espainiako kostaldean andaluzian lehen etorkin hila aurkitu zenaren 20. urteurrena "ospatu" da. 20 urte hauetan inork ez daki zehazki zenbat jende hil den muga hau pasatzen, batzuk diote 8.000 inguru direla. Honek esan nahi du, hemen zerbait gaizki dagoela. Jendea saiatzen da hona etortzen, hau ezin da mugatu kontrolak eta egin beharrekoa errealitatea onartzea da, beste neurri batzuk martxan jarri.

Bidea mugak ireki edo ez baldin bada, eztabaida konplikatu da. Gaur egungo sistemak ez du balio. Lotsagarria da, tragedia bat gertatzen ari da eta inork ez du onartu nahi eta honen aurrean zerbait egin behar da.

Eta giza eskubideak hainbeste bortxatzen al dira?

Ez dira etorkinak pertsona bezala onartzen, gauzak baliara bezala baizik. Proba eta adibide mordoxka dago. Joan den otsailean Marine I itsasuntziaren kasua esate baterako. Mauritaniara iritsi zen untzia eta Kanariasera joan nahi zuen. Estatu Espainiarrak poliziak bidali, hangoa kontrolatu eta etorkinak kaleratu zituen. Hau guztia ezinezkoa da hemengo herritar batekin gertatzen bada, hau guztia etorkinekin posible da soilik.

Adibide pila dago. Adibidez, Malta. Nazioarteko itsas-arauak diote jitean dagoen itsauntzi bat ikusten baduzu gertuen dagoen portura eramane behar duzula. Ba Maltak erantzukizuna estatu desberdinetan banatzea nahi du, hau da, nahiz eta untzia Maltatik gertu egon, beste estatu batera eramatea.

Melilla eta Ceutako hesia eta kontrola gehiegizkoak al dira?

Orain dela lau urte, 2007ko urtarrilean zazpi hildako azaldu ziren. Zer gertatu zen, ez dago garbi. Hortik aurrera saiakerak egon dira. Baina gero eta zailago jartzen ari dira, tramankuluak, etab.

Honek zer esan nahi du, ba hor jendea dagoela eta ez daukatela beste baliabiderik. Gainera pasatzen saiatzen direnak behartsuak dira, baliabide ekonomikoak ez duen jendea da eta ez dute beste erremediorik.

Bestetik, hau Europa mailan bultzatzen ari den politika batekin lotu behar da, muga kanporaketa. Honek esan nahi du muga dagoeneko ez dagoela Maroko, Argelia edo haratago dagoela eta bertan ari direla filtroak jartzen.

Eta mugen kanporaketa hori, legezkoa al da?

Legezkoa izan daiteke, baina kanporaketa hori nola egiten duten eta zer gertatzen den hango jendearekin, nola berrmatzen diren bere oinarriko giza eskubideak ikustekoa da.

Esate baterako, Argelia eta Maroko artean dagoen muga. Etorkinak hor gertatzen dira inorena ez den lur batean, Marokotik bueltatzen dituzte Argeliara eta Argeliatik Marokora eta hor gertatzen ari dena drama bat da. Gertatzen dana da komunikabideak ez doazela eta inork ez duela honen berri.

Amnistia Internazionalak duela hilabete batzuk txosten bat argitaratu zuen, oso interesgarria. Mauritaniar dagoen kanporatze zentro bati buruzkoa. Zentroa Estatu espainiarren diruarekin mantentzen da eta txosten horretan agertzen diren azalpenak, Guantánamo batekin alderatuta nahiko berdintsuak dira. Eta Estatu Espainiolak ez du ezer esan.

Europar Batasunak inmigratio legala bultzatu nahi du eta ilegalari traba gehiago jarri ...

Irailean Bruselaren sinatu da inmigratio akordioa, Frantziaren lehendakariarekin. Hitzarmen honek bost puntu ditu. Alde batetik inmigratio kualifikatu baten alde egiten du, honek esan nahi du, etorri nahi dutenek ikasketak izan behar dituztela, unibertsitateak, informatikoak. Hor apostu garrantzitsua dago. Ilegalari buruz betiko kontuak, kontrol gehiago, bisa aldetik, aireportutan, mugetan...

Baina beti ahazten zaie dokumentu eta biltzarretan migratio legalaren integrazioaren zer gertatzen den. Baldin bada migratio kualifikatu hori, ez da erreala. Ez gara oso urrutiko joan behar Lasarten bertan nortzuk ari diren etxeak garbitzen. Ez da plan teamendu erreala. Europa mailan, ez da onartzen beste errealitatea dagoela.

Arau horiek ekonomiari begira egiten dira?

Bai, utilitarismo garbi eta gogorra da. Azken adibideak Espainian ditugu. Orain dela gutxi itzulera legea onartu da. Lehen migratioaren garrantzia goraipatzen zuten eta orain krisia etorri eta guztia aldatu da. Kontra-

mezua dago. Lehengo plan teamendura bueltatu gara. Zergatik egiten da hau, etorkineta lan indar bezala pentsatzen delako, ez dute pentsatzen pertsonak direnik.

Gainera, Afrikako etorkinei traba gehiago jartzen zaiei, ezta?

Bai, noski. Kontuan izan behar da, Afrikako herrialde guztiek bisa behar dutela hona etortzeko. Bisa hori turismorako da gainera, legeak dioenaren arabera, gehieenez 90 egun pasatzeko. Bisa hori lortzea ezinezkoa da, herrialde batzuetan ezin zara Espainiako kontsulatu sartu ere egin. Badaude ere herrialde pila kontsulaturik ez dutena, beraz kontsulatu dagoen herrialdera joan behar dira. Hona etortzea legal modura egun oso zaila da, ezinezkoa.

Asiloa lortzeko zail al dago?

Asiloarekin gertatzen dena da atzerriartasun legearekin nahasten dela. Eta bi gauza hauek oso desberdinak dira.

Asiloa zure herrialdetik arazo politiko edo guda batengatik ihes bazaude duzun eskubidea da. Ginebrako konbentzioa den nazioarteko araua da asiloa eta oso zaila da araua aldatzen. Beraz, Europa mailan egiten dutena da ez aplikatu edo beste arau batzuk martxan jartzen dituzte eta ezin dute eskubide hori aplikatu. Estatu espainiolan %4a baino gutxiagok lortzen duela eskubide hori. Hau kopuru txikia da eta Europar gero eta gutxiago ematen da.

Zaila da egun asiloa onartzea, zeren eta asilo horren barruan asilo ekonomikoa nahastua dagoela esaten baitute. Hau da, ezin dela jakin asiloa eskatzen dutenek bere herrialdetik ihes dauden edo ekonomia arazo batengatik etortzen diren. Baina batzuk esaten dugu desberdintasun hori ez dela egin behar.

Ze irtenbide dago? Europar bakarrik hartu behar dira neurriak edo haien herrietan ere?

Bi aldeetatik egin behar da. Egia da gero eta parte-hartze gehiago dagoela Europaren eskutik, migratio politikarekin. Azken finean herrialde bakoitzak bere atzerriartasun legea du eta adostasun batera iristen dira bi edo hiru gaiekin. Gai horiek beti zer ikusia dute kontrolarekin. Alde horretatik lan asko dago egiteko. Nik ez dut uste iritsiko dela nolabaiteko homogeneizatzea edo bateratze batera. Irtenbideak ba ez dakit, lehendabizikoa, errealismoaren beste ikuspuntua izatea, ez dakit, errealismo jarrera izatea. •





**Negu honetan,
ahaztu hotza.**

**ESKANTZA
PAREGABEA**

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzaileekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:
3.300€
(BEZ kanpo).

+

KREDIGAS
finantziazio berezia,
instalazioa hileko kuota erosotan
finantzatzeko.

+

570€
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da (Credigas). Gauko tarifa badiuzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez badiuzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, berruko instalazioa egiteko, kondentsazio-goldara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandarren gaineko edozein aldatzea, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAlurekin harikuntza alia egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com



**naturgas
energia**

Herriko korrikalari ugari Behobian



Tren geltokian bildu ziren herritar gehienak goizeko 8:45ean trena hartu eta Behobiarako bidea egiteko

- Herriko 85 korrikalari izan ziren atzo Behobia-Donostia lasterketan
- Lehenengo lasarteoriatarra David Martin izan zen 01:05:38ko markarekin

TXINTXARRI

Atzo ospatu zen jende askok espero zuen Behobia-Donostia lasterketa eta beste urte batez Chema Martinez izan zen garailea 01:00:31ko markarekin. Berrogei eta laugarren edizio honetan parte hartzea inoiz baino handiagoa izan da, 13.900 gizon eta 2.400 emakumek eman zuten izena eta horietatik 13.832 iritsi ziren helmugara.

Herrikoak ere han izan ziren, aurtan 85 korrikalari. Lehenengo lasarteoriatarra David Martin izan zen 01:05:38ko denborarekin, iaz baino minutu bat gehiagoko denbora egin zuen. Herrikoen sailkapena hau izan da: 7.David Martin 01:05:38; 61.Jose Luis Delgado 01:10:00; 518.David Garcia

01:18:23; 545.Juan Lopez 01:18:35; 603.Mikel Izagirre 01:19:05; 723.Toño Perez 01:19:43; 912.Raul Barreira 01:21:03; 924.Jose Antonio Curiel 01:21:08; 947.German Calmaestra 01:21:17; 1131.Pablo Romero 01:22:24; 1646.Xabier Esnaola 01:24:43; 1692.Mikel Villarroya 01:24:52; 1823.Jose Ignacio Elvira 01:25:23; 1869.Joseba Liceaga 01:25:37; 1945.Fede Otaegi 01:25:57; 2243.Joxe Goikotxea 01:27:00; 2331.Juan Maria Marcos 01:27:18; 2388.Jose Antonio Hernandez 01:27:30; 2526.Joseba Iparragirre 01:27:56; 2574.Jose Luis Arzallus 01:28:07; 3040.Roberto Redondo 01:29:34; 3568.Jose Ramon Mendizabal 01:31:11; 3572.Carmelo Zarzuelo 01:31:12;

3644.Hodei Usabiaga 01:31:22; 3825-Francisco Javier Ruiz 01:31:52; 3989.Antonio Mazo 01:32:23; 4167.Ibon Azkonobieta 01:32:54; 4265.Mikel Ormazabal 01:33:14; 4415.Alberto Arbizu 01:33:40; 4446.Txetxu Merchan 01:33:45; 4686.Iker Uribarrena 01:34:30; 4796.David Mecerreyes 01:34:47; 5030.Andoni Gomez 01:35:25; 5087.Tomas Arruti 01:35:34; 5234.Roberto Ortega 01:35:56; 5235.Eduardo Rivas 01:35:56; 5290.Jose Ignacio Mendiluce 01:36:08; 5378.Eduardo Ormazabal 01:36:22; 5602.Manolo Lopez 01:37:01; 5768.Hibai Diez 01:37:25; 5817.Aitor Sorozabal 01:37:31; 6104.Javier Olazagoitia 01:38:18; 6521.Jon Esnal

01:39:26; 6590.Jose Antonio Eizmendi 01:36:37; 6773.Aitor Otero 01:40:06; 6776.ulen Vega 01:40:07; 6800.Jorge Paino 01:40:11; 6819.Manuel Mendez 01:40:16; 7019.Aitor Zelarain 01:40:50; 7234.Ion Ormazabal 01:41:24; 7258.Jose Miguel Corchuelo 01:41:28; 7647.Iñigo Valdivia 01:42:39; 7774.Juan Jose Molano 01:43:00; 7797.Jose Joaquin Peña 01:43:06; 7887.Manex Altolagirre 01:43:23; 7988.Txema Valles 01:43:39; 8118.Luis Manuel Urbano 01:44:06; 8144.Igor Amantegi 01:44:10; 8147.Pello Artetxe 01:44:12; 8276.Asier Gorostegi 01:44:34; 8473.Roberto Rebe 01:45:11; 9101.Jaime Blanco 01:47:18; 9105.Carlos Muñoz 01:47:19; 9428.Fernando Egaña 01:48:25; 9602.

Pello Fadrique 01:48:59; 9625.Katxu Altuna 01:49:03; 9940.Roberto Lahidalga 01:50:05; 10108.Juan Mari Gastesi 01:50:40; 10250.Gorka Alvarez 01:51:13; 10541.Maite Salazar 01:52:17; 10540.Ramon Salazar 01:52:17; 10720.Juan Mari Sarobe 01:52:55; 11013.Mikel Rivera 01:54:06; 11672.Miguel Angel Garcia 01:57:24; 11766.Iñigo Calvo 01:57:58; 11791.Fernando Ayape 01:58:05; 12024.Oihana Salazar 01:59:12; 12323.Iñaki Alkorta 02:00:58; 12779.Andoni Olano 02:04:23; 12879.Elena Arriaran 02:05:12; 12881.Jose Javier Alonso 02:05:12; 13206.Urko Torre 02:09:16; 13403.Irune Alzola 02:12:35 eta 13630. postuan Fernando Baile 02:19:26.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikulueta eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

MONICA CAÑON URSOLA margolariaren margo minimalistak ikusgai. Jalgi kafe-antzikian, egun osoan.



Erakusketa

ASIER BASTIDA argazkilariaren *Amets bat eraikitzen* erakusketa. Euskal Fondoen laguntzarekin. Manuel Lekuona Kulturetxeko erakusketetako aretoan honako ordutegiarik: 18:00etatik 21:00etara.

Astearte, 11

Ipuin-kontalaria

BEATRIZ EGIZABALEK ipuin zoragarriak kontatuko ditu 6 eta 8 urte bitarteko haurrentzat. Emanaldia, Manuel Lekuona Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan. EUSKARAZ



Persepolis filma ostegunean

Okendo Zinema Taldeak eskaintzen duen filmak iraniar neska baten istorio hunkigarria azaltzen digu. Islamiar erboluziotik gaur egunerarteko pasarteak kontatuz. Istoria, fundamentalistek boterea bereganatu, emakumeak beloa erabiltzea derrigortu eta milaka pertsona kartzeleratzearekin bat hasten da. Istoria, fundamentalistek boterea bereganatu, emakumeak beloa erabiltzea derrigortu eta milaka pertsona kartzeleratzearekin bat hasten da.

OSTEGUNEAN 22:00ETAN
KULTURETXEAN, SARRERA, 4 EURO

Asteazkena 12

Ipuin-kontalaria

KORUKO ZURUTUZA ipuin-kontalariaren saioa etxeko txikientzat. Manuel Lekuona Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan. EUSKARAZ.

Osteguna, 13

Hitzaldia

Lantokiko jazarpena, mobbing-a: prebentziotik tratamendura izenburuko hitzaldia eskainiko du Xabier Arrazola psikologoak. Manuel Lekuona Kulturetxean, 19:00etan.

Ostirala, 14

Kontzertua

ANNA VALENTINA hirukotea (Jazz-Swing) izango da hilero-ko jam sesioko gonbidatu berezia. Jalgi kafe-antzikian, 22:30ean.

Igandea, 16

Zinea

VIAJE AL CENTRO DE LA TIERRA filma ikusgai haurrentzako zinearen barruan. Sarrera 3 euro. Manuel Lekuona Kulturetxean, 17:00etan.

Irudiekin

munduan barrena

Diaporamen zikloa Jalgi kafe-antzikian asteazkenero iluntzeko 21:00etan

Asteazkena 12

OINATZ TALDEAK Orkatza-mendira, Araotz bailara... udaberrian eginiko bidaia azalduko du.

EUSKARAZ

Asteazkena 19

ANDER AMONDARAINAK, Cabo Verdere eginiko bidaia azalduko du Bidaie-tako Diaporamen zikloaren barruan. EUSKARAZ

Asteazkena 26

IRATI PEREZK, Nepalera eginiko bidaia kontatuko du Bidaie-tako Diaporamen zikloaren barruan. EUSKARAZ

Asteazkena 3

HIBAI DIEZEK ETA LAGUNEK Txina, Tibet, Kyrgyztan eta Uzbekistanera eginiko bidaia kontatuko dute.

EUSKARAZ

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta
17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona Kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.
Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Argazki kamara digital bat galdu da

Argazki kamara digital bat galdu zen Lasarte-Oria Bai! Krros herrikoiairene egunean, urriaren 26an. BENQ DC E720 markako kamara bat da. Aurkitu duenak mesedez deitu dezala 605 760 578 zenbakira. Sarituko da.

Eguberrietako loteria

Lasartearra elkartek, bazkide eta lagunei jakinarazi nahi die, gabonetako loteria dagoeneko salgai dagoela. Erostekoa asmoa duenak elkartean egin dezake astelehenetik ostiralera 18:00aurre-rra abenduaren 7a arte, hau barne.

Katxalin Elkarteko loteria

Bularreko eta Ginekologiako Minbiziagatik Eragindako Gipuzkoako Emakumeen Elkartek, Katxalinek, gabonetako loteria bidali du Lasarte-Oriako Kontsumitzaileen Informaziorako

Udal Bulegora. Zenbakia 07.731 da eta txartel bakoitzaren prezioa 3 eurotakoa da, 0,50 zentimoko dohaina Katxalin elkartetako izango delarik. Loteria hau erosteko interesa dutenek KIUBn egin dezakete, Ganbo kalean.

Maratoian galdutako zenbait gauza

Euskararen VII. Maratoiko asteburuan, urriaren 18 eta 19an, zenbait gauza azaldu ziren plazan eta Ttakun Kultur Elkarteko egoitzan daude: motxila bat, arropa... Norbait zerbait galdu bazuen aste-buru horretan pasa dadila lehen bailehen, mesedez, Ttakuneko bulegotik jasotzera (Geltoki kalea 4, 943 371448).

Bizikletako kaskoa

Bizikletaz ibiltzeko haur kasko bat agertu da. Galdutako duenak deitu dezala, mesedez, lehen bailehen honako telefonora 943 366858.

Aerogazte

Astelehen eta asteazkenetan, 17:15ean, aerobikeko eskolak ematen dira 14 urtetik beherako neska-mutilentzat, Udal Kiroldegiko aretoan. Gaztetxoek gogoko duten jardura alai eta dibertigarria da aerobica. Erritmoaren eta musika-kadentzien bidez, giza-harremanak eta osasuna garatzen eta hobetzen dituzte. Begirale tituludun eta aditu batek koordinatu eta animatzen du, koreografia ugarirekin, musika eguneratu eta dibertigarri, eta asmo bakar honekin: ondo pasatzea, eta ahalegin handiegirik gabe, ariketa fisiko atsegina egitea.

Aquarobic

Modalitate fisiko berri honen eskolak Udal Kiroldegiko Igerilekuan ematen dira, astearte eta ostegunetan, 9:15etik 14:15era. Aquarobic uretako gimnasia egitean datza, musikaz eta ikasle beha-

rretara egokitutako ariketaz lagundua. Uretan egindako aerobica balitz bezala da. Edozein adin, genero eta mailatako pertsonak ur-ingurune batean egin dezaketen jardura da, igerileku ez oso sakonean hain zuzen ere. Aerobicaren bidez errendimendua handitu daiteke besoak, hankak eta enborra erabiltzen diren kirolekin. Prestakuntza-modu ezin hobea da, baita ere, gorpuzaren goiko atalen esku-hartzea eskatzen duten jardura profesionala garatzen dutenentzat. Ur-ingurune batean txikiagoa da lur-zoruarekiko talka, eta ondorioz, txikiagoa artikulazioen gaineko tentsioa.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxari@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Lasarteoriarrak Aspanovas elkartearen X. urteurrenean

■ Zero Sette akordeoi orkestra, Pirritx, Porrotx eta Mari Motots eta Erketz Euskal Dantza Taldea izango dira beste batzuen artean Kursalean azaroaren 15eko jaialdian

Helena FERRERAS

Azaroaren 4ean Gipuzkoako Aspanovas elkarteak (Minbizia duten haurren senideen elkarte) X. urteurrenaren aurkezpena egin zuten komunikabideen aurrean Koldo Mitxelenan.

Urteurrena azaroaren 15ean ospatuko dute Kursaleko auditorioan. Egun oso festa izango da eta lasarteoritar batzuk izango dira han eguna girotzeko, musikariak, dantzariak eta aurkezlea ere herrikoa, Maider Seguroa.

Minbizia mintzagai

Goizean 11:45ean hasiko da jaialdia Pirritx eta Porrotx pailazoan ikuskizunarekin, *Eskerrik asko* proiektu berria aurkeztuko dute. CD-liburuxkan parte hartu duen jendearen laguntza izango dute bertan.

Mari Motots ospitalean dagoen bitartean gertatzen da dena, minbizia dauka eta sendatzeko behar dituen botiken erruz ilea erortzen zaio. Gaia naturaltasun eta itxaropenarekin tratatzen dute eta Pailazoek proiektua aurrera eramateko Aspanovas elkarteak izan dute une oro



Koldo Mitxelena kulturetxean Aspanovas elkartearen X. urteurrenaren aurkezpena.

Arg.: Txema Valles

ondoan, minbizia duten haurren senideen elkarte hain zuzen ere. Gaia lantzerako orduan ere Donostiako Ospitaleko profesionalen laguntza jaso dute, mediku eta hezitzaileena.

Musika eta Dantza

Arratsaldeko musika jaialdiari 18:00etan emango zaio hasiera. Lehenengo Jon Maia eta Andoni Egaña bertsolariak izango dira eta ondoren Donostiako Aita Donosti

Korala, Javier Alberdiren zuzendaritzapean.

19:00etan Zero Sette akordeoi orkestra aterako da ohol-tza gainera ordubeteko ikuskizuna ematera. Goikourriaren gidaritzapean, Amaia

Gonzalez dantza eskolako ikasleen eta Erketz Euskal Dantza Taldearen laguntza izango dute. Amaia Gonzalez eskolako ikasleek *S'il vous Plait* tangoan, *La Boda de Luis Alonso* eta *Brasilia* nahasketan lagunduko diete Zero Settekoek. Erketzekoek, bestetik, *El Caserio* abestiaren bertsiotan. Zero Settekoen musika-lanen artean Iñigo Peña lasarteoritarren *Euskal Suitearen* 4. mugimendua *Dantza ta Agurra* abestia eskainiko dute Neskur Pagola eta Agurtzane Goikouria txalapartarien laguntzarekin. Gainontzeko abestiak Zero Setteko arkordeoiariak soilik joko dituzte, *Danza del Sable*, *Bagatela* eta *Guillermo Tell*-en *Oberturaren* azken zatia.

Jaialdiari amaiera emateko *Ave Verun Corpus* interpreta-tuko dute Zero Settekoek Aita Donostia Koralekoekin eta ondoren *Eusko Irudiak* bi taldeek Erketzek lagunduta.

Jaialdira joan nahi duenak sarrerak Servikutxan jaso ditza-ke 6 euroen truke, dagoeneko goizeko saioarako ez dago sarrerarik. Salneurria sinbolikoa da eta jasotako diru guztia Aspanovas-Gipuzkoa elkartearen laguntza izango da. •



Pirritx, Porrotx eta Mari Motots lan eta lan

Eskerrik asko! DVDa

Oraingoan *Eskerrik asko!* DVDarekin datozkigu Pirritx, Porrotx eta Mari Motots. Andoango Bastero Antzokian grabatutako ikuskizuna batetik eta bestetik, sei erre-
portaje txiki, karaokerako bost abesti eta diskako kantu guztien partiturak. Bi ordu eta erdian zehar behintzat ez aspertzeko modukoa.

Proiektuak atal desberdinak ditu, adibidez, *T'estimo, maite zaitut!* Lax'n'busto Kataluinako taldearen abestiaren lan bakarra, *Piratak* izenburuko CDa laster egongo da eskuragai eta gainera sukaldeko errezeta ipuinen inguruko liburua.

Baina hau ez da abian duten lan bakarra, *Piratak* izenburuko CDa laster egongo da eskuragai eta gainera sukaldeko errezeta ipuinen inguruko liburua.

Piratak

Bestetik, hurrengo abentura-rako Euskal Herriko pirata-toekin gogoratu dira Pirritx Porrotx eta Mari Motots.

Altxorraren bila joango dira adorez, irudimenez eta trebeziarekin betetako bidaian, ez baita erraza pirata izatea.

Lan berri hau irailan hasi ziren grabatzen eta dagoeneko nahasketa lanak basterik ez dira geratzen.

Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsekin batera hainbat musikari, kantari eta lagunek hartu dute parte Igor Telletxea, Luis Vega, OrekaTX edo Tapia eta Leturia adibidez. Partehartzaile berezi moduan Celtas Cortos taldeko kideak eta Su Ta Gar taldeko Aitor Gorosabel aipatu behar dira, azken

honek gitarra jotzeaz gain Patakon piratari jarri dio ahotsa.

Sukaldean

Sukaldea leku interesgarria da ikasteko eta ondo pasatzeko.

Pirritx eta Porrotx sukaldean liburua, hurrek egiteko moduko errezetak daude, gurasoekin sukaldean saltzearen hasteko proposamen interesgarri batzuk. Etxeko lanak konpartitzen hasi daitezke, beti ere dibertituz eta ondo pasatuz.

Liburuaren aurkezpena ostiralean izan zen Donostiako Elkar aretoan, bertan Pirritx eta Porrotx, Amaia Diaz de Monasterioren nutrizionista eta Mitxel Murua editorea izan ziren. •